



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BASAURIKO UDALAREN 2007-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARENA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Basauriko Udalaren 2007ko ekitaldiaren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Udalaren, Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoaren Kontu Orokorren fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita, kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Aurrekontuaren esparruan, Erakunde Fiskalizatzaileak adierazi du Bizkaiko Toki Erakundeen Aurrekontuko 10/2003 Foru Araua ez dela bete, izan ere, ez baita ekitaldiari dagokion aurrekontua onesteko aurkeztu.

Langileriari dagokionez, HKEEk adierazten du Udalak ez duela aldizkari ofizialean argitaratu lan baldintzak arautzen dituen Akordioa (Udalhitz), ez eta bere zerbitzura diharduen langileriaren araubidea arautzen duen araua. Argitalpen eza honek, kasu bietan, indarrean sartzea eta dagozkion ondorio juridikoak sortzea eragozten du.

Administrazioko kontratazioari dagokionez, txostenak adierazten du ez dela Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean, ez Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu parke, lorategi eta gune berdeak mantentzeko kontratuaren lehiaketa, kopuruaren arabera bietan argitaratu behar zatekeena.

Atal honetan bertan, Udalak eta Kultur Etxeak, hurrenez hurren, 250 mila eta 275 mila euroko gastuak egin dituzte, publizitate eta lehia printzipioak gorde gabe. Honez gain, Udalak aurreko printzipioak saihestearren, kontratuaren helburua zatikatu du hainbat gasturen artean, 155 mila euroko zenbatekoarekin.



Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia eman du aurkezpen eta edukiari dagokionez eta akats bat azpimarratu du ibilgetuko gaien ondasun-zerrenda gaurkoturik ez izateagatik; eta Diruzaintza Geldikina 2,7 milioi euroan gehitzea eragin duten kontabilitateko hainbat zuzenketa egiteagatik, 26,3 milioi euroan jarri dutenak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Amaitzeko, finantza egoerari dagokionez esan behar dugu, azken hiru ekitaldietan sortutako aurrezki garbiak, batik bat azken honetan, ekitaldi hauetan izandako inbertsio bolumenaren parekoari eustea bideratu duela, kanpoko finantzaketa iturrietara jo beharrik izan gabe.